

` ` Circular Defense ` `

Anna Daučíková
Zbyněk Baladrán

Beatriz Herraez ek komisariatua

17.05.2018 - 25.07.2018

CarrerasMugica

Erakusketa hau CarrerasMugica galeriatik luzatutako gonbidapen baten ondorio gisa sortzen da¹, eta Anna Daucikova (Bratislava, 1950) eta Zbynek Baladran (Praga, 1973) artisten obrak biltzen ditu (bideo-lanak, argazkiak, eskultura eta testua). *Circular Defense* izenburuarekin², eta 1989. urtea abiapuntutzat hartuta (besteak beste Berlingo harresiaren eraistek markatzen duen data), erakusten diren obrek, elkar gurutzatu eta gainezartzen diren narrazio eta irudiak iradokitzen dituzte, Europa ekialdeko testuinguru soziopolitikoan izandako eraldaketak atze-oihala gisa dituen kontakizun polifonikoa osatuz.

Erakusketa, Anna Daucikovak Moskun 1970eko hamarkadaren amaiera aldetik 1991. urtera arte bizitzen eta lanean emandako urteetan ekoiztutako argazki serieekin hasten da. *Moscow, Women, Sunday* eta *Celebration* serieek, sistema politikoaren agortze eta akidura zantzuak islatzen ditu sobietar hiriburuan, harako sozialismo errealearen testuinguruan emakume askok jasaten zuten muturreko pobrezia egoera erakusten duten irudien bitartez. Estajanovistaren figuraren pareko ilun bat erakutsi nahi balu legez, Daucikovaren irudiek emakumeen igande arratsalderoko kalez kaleko noraeza dokumentatzen dute, espazio horietanxe ematen den gizonen ia erabateko absentiaren aurrean: “Haiei energia setatsua, edo, asteen 7 egunez eta egunean 24 orduz lanaren ardurak etxeko eginbeharrekin batera aurrera ateratzea ahalbidetzen zien biziraupen teknikak erretratu serie honetako leitmotiv bihurtu ziren, baita emakumeari berari, pikutara zihoan bizimodu eta aro historiko baten errepresentazio gisa, egindako aitortza bat ere”³. Erregimenaren kultua zen esfortzuaren eta lan fisikoaren gorazarre horren kontrairudia nolabait, non emakume horien gorputzen presentzia hutsak adierazten baituen sozialismoaren gizon produktibo eta goren hura eraikitzeke ametsaren porrot argia. Mendebaldearen premisa ideologikoen arabera Historia ofizialak asimilaturiko iragan batean gelditu gabe, irudiok, aitzitik, kolektiboa denaren ohitura eta errutinekiko ustekabeko harreman eta konexioak ezartzeko gaitasuna erakusten dute.

1989. urtea izan zen, halaber, *Communist daily Rudé právo* (1971-1989) berripaper komunistak argia ikusteari utziko zionekoa, eta, aldi berean, *Lidové noviny* egunkari liberal post-iraultzailea agertu zenekoa. Bi agerikari horiek dira *Contingent Propositions* (2015) obraren iturri dokumentalak. Galeriak hormetan 70 metro luzatzen den Zbynek Baladranen collage horrek aurrez aurre jartzen ditu kapitalismo berantiarak gaur eguneko Txekiar Errepublikan utzitako ondorio historikoak: “Bi egunkari txekiar horiek

iturritzat hartu eta XX. mendeko munstro ideologikoak mapeatuz, oraindik ezagutzera eman gabeko etorkizun global baten koordenadak laburtzen ditut. Iraganeko dokumentuen birziklatzeak 2008ko Depresio Handira daramaten arrastoak uzten ditu, eta, beharbada, mundu post-kapitalistaren forma berriaren isla da”.

Gertatu denari eta etortzeko dagoenari buruzko argudio eta hipotesi sorta hori elikatzen datoz *Three Curtains* (2014) filmeko protagonistek kontatzen dituzten istorioak. Daucikovaren lan honek ikuspuntu autobiografiko batetik heltzen die Sobiet Batasun ohiko erregimena ezaugarritu zuten itxitura eta inkomunikazio espazioei, denboran zehar haren muga zarratze jarraitua dokumentatzen duten ikerketa kasu ezberdinak erabilia. Artistak hiru momentu historikotan -joan zen mendeko 20ko, 50eko eta 80ko urteak- pausatzen du bere begirada, bizitza esperientzia horietan adieraziz herrialdeak bere kanpoarekiko zuen araudi zorrotzaren erasanaren isla.

Orobat “Testigantzen” metodologia horri jarraitzen dion *On Allomorphing* (2017) piezarekin, Daucikovak “gorputz mentala” deritzona negoziazio eremu gisa esploratzen du, subjektibitate politikoaren norberegantze eta eraikuntza forma ezberdinak aztertuz. Berrir ere norbanako jakin batzuen bizitzek ehuntzen dute testigantza sare edo bilbea ahots ezberdinen bidez: horien artean ekintzaile transgenero batena edo emakume batena Valery Lamakh (1925-1978) ukrainar pintoreaz hitz egiten, zeina 60ko urteetan Kievtik Moskuko Lenin liburutegira baitoa, ohartarazi zutelarik, 50 urte lehenago, eta berak ordura arte ez zekiela, Piet Mondrian izeneko beste artista batek, berak egin zuen ikerketa formalaren oso antzeko beste bat egin zuela. Pieza honetako beste istorio batean egilearen ahotsa ere entzuten da kristalezko hainbat objektu esku artean darabilen bitartean: “Zortzi urte nituela, uste nuen gauero modu jakin batean etzaten banintzen, nire gorputza molde batean balego bezala haziko zela. Denborarekin, pentsatzen nuen, nire gorputzak ezagutu eta hartu egingo du desiratutako forma. Gorputz indartsu eta zizelkatu batekin amesten nuen”.

Simone Weilek bere hilondoko *La personne et le sacré* testuan, XX. mendeko pentsamendu politikoak norbanakotasunaren eta kolektibotasunaren arteko harremana entelegatzeko izan dituen modu okerren kontra jotzen du. Bere hitzetan, “arriskurik handiena


ez da kolektibotasunak pertsona hertsatzeko duen tendentzia, pertsonak duen kolektibotasunean amiltzeko, itotzeko joera baizik”. Base militar batenak izandako instalazio batzuetan filmatutako *To be framed* (2017) lanean, Zbynek Baladran artistak ere gogoeta bat proposatzen du “hitz egitea edo geure bizitzak antolatzea” eragotziz gure gorputzak moldatzen dituzten kontentzio esparru ikusezin horien gainean. Filmak, offeko ahotsa baliatuz, hedatu egiten diren eta gure harremanak arautzen dituzten biolentzia modu ikusezin horietan jartzen du arreta, kameraren aurrean jolasean ari den ume talde bati jarraituz.

XX. mendeko errelato handien gainbeherak ekarritako desengainuen ondoko alternatibak eraikitzean datza Baladranen lanetako asko zeharkatzen dituen gogoeta. Sistemak eta diagramak gogora ekartzen dituzten forma jakinak hartuz, bere lanetan zientzia-fikzioaren generoko egiturekin antzekotasunak dituzten asoziazio eta hipotesiak biltzen dira. *Automated Subject* (2016) eskultura esekian, non Baladranek bere hitzak zein Stanislaw Lem eta Andrei Platonoven testuetatik modu librean abiatuturiko beste hainbat erabiltzen dituen, subjektibitatearen eraikuntza prozesuak ezbaian jartzeko: “automatiko/automatismo nozioak norbanakoaren kontzientziaren lekura eramateak guztiok osoki barne hartzea errazten du unibertsalaren ideia eratzen amaitzen duten leku pribilegiatu horietan, non “gu guztiok” sartuta izango baikinakeke.

1 Hasierako unetik, proposamen honek zenbait praktikarekin -nahiz eta testuinguruaren parte ez izan, “gertukoak” zaizkigun egiteko moduei erantzuten dietenak- elkarriketa bat irekitzea bilatzen du. Hala, Zbynek Baladran, aurretik ere Euskal Herrian bere lana erakutsitako artistarekin izandako hizketaldi zenbaiten ondoren, Anna Daucikovari ere gonbidapena helaraztea erabaki genuen.

2 *Circular Defense* (Kruhova Obrana, 1984), Milan Simecka (1930-1990) historialariaren idatzi baten izenburua da. Testuan Txekoslovakian 70garren eta 80garren hamarkadetan “Normalizazio” deiturikoan sozialismo errealearen esperientziaren kontraesanak deskribatzen dira.


3 Komatxo artean nabarmentzen den oro artisten hitzak dira.





Ikuspegi orokorra
 Zbyněk Baladrán *From the New Theological Jokes*, 2017. PV imprimaketa, 5pc, 42 x 35 cm bakoitzak. Ed 1/3.



Zbyněk Baladrán *Contingent propositions* (big version), 2015-2018. 283 collage digitalak. 25 x 7075cm. Bakarra +1 A.P.



Zbyněk Baladrán *Contingent propositions* (big version), 2015-2018. 283 collage digitalak. 25 x 7075cm. Bakarra +1 A.P.



Zbyněk Baladrán *Contingent propositions* (big version), 2015-2018. 283 collage digitalak. 25 x 7075cm. Bakarra +1 A.P.



Ikuspegi orokorra




Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Zbyněk Baladrán *To be framed*, 2016. Bideo 8'11" . Ed 1/3.





Anna Daučíková *Three curtains*, 2014. Bideo 12'. Ed 3+1.



Ikuspegi orokorra




Anna Daučíková *Moscow / Women / Sunday*, 1989-1990. 24 txuri-beltza argazkiak (48 x 30 cm bakoitzak). Ed 3+1.




Anna Daučíková Moscow / Women / Sunday



Anna Daučíková *Moscow / Women / Sunday*



Anna Daučíková *Celebration I* (above) and *Celebration II* (below), 1989. 3 txuri-beltza argazkiak (21,5 x 30,5 cm bakoitzak). Ed 3+1.



Zbyněk Baladrán *Automated Subject-Entities that want to become other entities*, 2016-2018. Imprimaketa paper gainean. 1200 x 900 cm. Ed 1/3. Ikuspegi orokorra



Anna Daučíková *On allomorphing*, 2017. Bideo 16'. Ed 3+1.



Anna Daučíková *On allomorphing*, 2017. Bideo 16'. Ed 3+1.



Anna Daučíková *On allomorphing*, 2017. Bideo 16'. Ed 3+1.

Anna Daučíková

(Bratislava, 1950)

1978an Bratislavako Arte Ederren Akademiako arkitektura departamentuan Vaclav Ciglerrekin graduatu ondoren. Moskurantz joko du, eta han bizi eta lan egingo du 1991. urtera arte. Garai horretakoak dira bai bere pintura ekoizpen ugaria zein argazkigintzarekiko bere interesaren jatorria, pentsamendu feministarekin topatzearen ondorio izango dena. 90eko urteen hasieran Bratislavara itzultzean, Eslovakiako emakume pentsalari talde batek kudeatutako ASPEKT aldizkari feministan hasiko da argitaratzen. Bere praktika artistikoa, estudiantik, Eslovakian ohikoak diren bideoa eta performancea bezalako euskarrietara igaroko da. Artista gisa jarduteaz gain, emakumeekin loturiko hainbat GKEtako fundatzaile eta kide ere bada; baita Eslovakian LGTB kolektiboen eskubideen bozeramailetako bat ere. Bere ibilbide akademikoari dagokionez, irakasle izan zen 1999tik 2012ra Bratislavako Arte Ederren eta Diseinuaren Akademian, eta 2012tik aurrera, Pragako Arte Ederren Akademian. 1995. urtetik ari da bere lana nazioartean erakusten: 2017, Documenta 12, Atenas/Kassel; 2016, Gallery Futura, Praga; 2015, Kiyv Biennial/School of Kyiv; 2014, Manifesta 10, Eastern Window, St. Petersburg; 2013, "Good Girls", MNAC, Bukarest; 2010, "Gender Check – Femininity and Masculinity in the Art of Eastern Europe", Zachęta National Gallery of Art, Varsovia eta MUMOK, Viena.

Zbyněk Baladrán

(Praga, 1973)

Artista eta komisarioa, Baladraneke artearen historia ikasi zuen Pragako Charles Universityko filosofia fakultatean (1992-1996) eta ikus-entzunezko komunikazioa Pragako Arte Ederren Akademian (1997-2003). 2001ean Pragan abiatutako Galerie Display proiektuaren kide fundatzaile eta komisarioetako bat da; 2007an tranzit.cz egiturarekin bat egin eta tranzitdisplay bilakatuko da, eta bertan jarraitzen du erakusketak programa koordinatzen. Komisario kidea da Vit Havranekekin batera Monument to Transformation proiektuan; hiru urteko ikerketak programa hau 2009an aurkeztu zen Prague City Gallery espazioan, eta Europako hainbat lekutatik igaro da. Halaber, 2010ean Murtzian egin zen Manifesta 8ko komisario taldeko (tranzit.org) kide izan zen. Baladraneke obra nazioartean erakutsia izan da: 2017, State of Concept, Atenas; 2015, Institute of Contemporary Art, Sofia; 2014, CAC Synagogue de Delme, Delme, Frantzia; Kunstraum München, Munich; 2013, Txekiar Errepublika eta Eslovakiako pabilioia, 55. Veneziako Biurtekoa.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725